



# Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria



**Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria** lortzeko, irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2012-11605>), ekintzen esparrua definitzen du.

Jasotzen dituen **berritasun nabarmenenak** ondorengoak dira:

## Ustiapen-koadernoak

Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenen titularrek **Ustiapen-koadernoak** izan beharko dute, eta bertan, ustiapenean burutzen diren ekintzak guztiak jaso beharko dira. Burututako tramenduen erregistroa eguneratuta egon beharko dute uneoro.

USTIAPEN-KOADERNOak sarbidea ([http://www.euskadi.eus/ustiapen\\_koaderno/web01-a2nekabe/eu/](http://www.euskadi.eus/ustiapen_koaderno/web01-a2nekabe/eu/))

## Fitosanitario aholkularia

Ustiapenetako izurriteen kontrako aplikazioen kudeaketarako, oinarritzko elementu bezala **aholkulariaren irudia** ezartzen da. Produktu fitosanitario erabilera baxuko ustiapenak salbuespen.

AHOLKUTIK SALBUETSITAKO LABORANTZEN ZERRENDA ([https://www.mapama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/LISTA%20DE%20CULTIVOS%20EXENTOS%20ASESORAMIENTO\\_tcm30-57924.pdf](https://www.mapama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/LISTA%20DE%20CULTIVOS%20EXENTOS%20ASESORAMIENTO_tcm30-57924.pdf))

Ustiapenetarako eskatutako AHOLKULARITZA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA ([https://www.mapama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/documentacion\\_de\\_asesoramiento\\_tcm30-57923.pdf](https://www.mapama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/documentacion_de_asesoramiento_tcm30-57923.pdf))

*H/* Aholkuriak bilatu - EOE (ROPO) (<https://www.mapama.gob.es/app/ropo/>)

## IKI (Izurriteen Kudeaketa Integratua)

**Ustiapen profesional guztiak derrigor bete behar dituzte IKI xedeak**, fitosanitario erabilera baxukoak salbuespen. Ministerioak IKI gidak argitaratzen ditu, nekazari eta aholkularientzat, izurriteen kudeaketa integraleko hatsarreak ezartzeko orientabide izan daitezten. IKI kuadeketa beti dokumentalki islatuta geratu behar izango du.

IKI gidak (<https://www.mapama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/productos-fitosanitarios/guias-gestion-plagas/>)

## EOEO (Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofiziala)

---

Bai produktu fitosanitarioen fabrikazio eta salmentarekin zerikusia duten enpresak, bai tratamendu enpresak, aholkulariak eta erabiltzaile profesionalak **EOEOn** inskribatuak egongo dira. Erabilera ez profesionalerako baimendutako merkaturatzen diren fitosanitarioak salbuespen. Nolanahi ere, horrek lau sektore ditu:

- Horniduren sektorea
  - Fabrikazioa, merkaturatzea
- Tratamenduen sektorea
  - Tratamenduen enpresak
- Aholkularitzaren sektorea
  - Aholkulariak
- Sektore profesionala
  - Erabiltzaile profesionalak

EOEOra sarbidea (<https://www.mapama.gob.es/app/ropo/Default.aspx>)

## TOEE (Transakzio eta Operazio Erregistro Elektronikoa)

---

1311/2012 EDan ezartzen diren produktu fitosanitarioekin gauzatutako transakzioen erregistroa errazteko, **Transakzio eta Operazio Erregistro Elektronikoa (TOEE)** gauzatu da. Erregistro erreminta izango da ondorengoentzat:

- **Erabilera profesionala duten produktu fitosanitarioen ekoizleek eta banatzaileek:** Hirugarren bati egindako salmenta eragiketa guztiak erregistratu beharko dituzte.
- **Erabiltzaile profesionalak eta hirugarren bati zerbituzua ematen duten tratamendu enpresek:** Egindako operazioen erregistroa eraman beharko dute.

TOEEra sarbidea (<https://www.mapama.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/productos-fitosanitarios/reto/>)

## Nekazaritzakoa ez den eremuetan produktu fitosanitarien erabilera

---

Era berean, nekazaritzatik at, hala nola, parke eta lorategietan, familia baratzeetan, zerbitzu sareetan, industria guneeetan eta bestelakoetan produktu fitosanitarioen erabilera arautzen da. Ondoren azaltzen dira kontutan hartu beharreko neurri nabarmenenak.

Eremuak (*)		Espazio-motak (*)	Baldintzak	
			Berariazoak (nekazaritzaz kanpoko arloa)	Orokorrak (nekazaritza arloa eta nekazaritzaz kanpoko)
BERARIAZOAK	ESPAZIO PRUBLIKOAK	Aisialdia Aisia Kirol-jarduna Kirol-zelaiak	- Saihestu hirugarrenak tratatu beharreko eremuan sartzea	(1) <u>ROPOn</u> INSKRIBATZEA: Ezinbesteko baldintza da erregistroan inskribatzea produktu fitosanitarioen hornidura, ekoizpen, komertzializazio, manipulazio, aplikazio eta erabilerarekin lotutako edozein jardura profesional gauzatzeko.  (2) TXARTELA: "P. FITOSANITARIOEN ERABILTZAILE PROFESIONALA" Profesional guztiak izan beharko dute egiten duten jardueraren mailarekin bat datorren txartela. - Oinarritzkoa - Kualifikatua - Fumigatzailea - Pilotu aplikatzailea
	TALDE ZAURGARRIAK	Ikastetxeak Hautzaindegiak Haur-jolasak Osasun-arretarako zentroak Adinekoen egoitzak	- Zentroko zuzendariari aurrez jakinaraztea (*) - Saihestu hirugarrenak tratatu beharreko eremuan sartzea	(3) AHOLKULARITZA: Beharrezkoa izango da aholkulari-teknikari bat, izurriteen kudeaketa integralerako kasu guztietan. Aholkulariak "Aholkularitza Agiria" sinatu beharko du.  Nekazaritzaz kanpoko arloan, erabiltzaile profesionalak edo kontratatutako enpresak "Lan Plana" egin beharko du, aholkularitza-agiriarekin bat etorriz.  PRODUKTU FITOSANITARIOEN ERABILERA: - Dagokion txarteletako titularrei baino ez zaizkie hornituko produktu fitosanitarioak. - Profesionalak ez diren erabiltzaileek profesionala EZ den erabilerarako baino ezingo dituzte erabili produktuak. - Istripuak edo isuriak ekiditeko egokiak diren lokal edo armairu itxietan biltegitratzea. - Ontzi huts guztiak edukiontzi batean biltegitratuko dira modu egokian, hondakinen kudeatzaile bati eman bitartean (SIGFITO).
HARRERA ZENTROAK ETA UGALKETA-ZELAIK		Barazki eta fruta ustiategiak Biltegiak Eraldaketa-instalazioak Ugalketa-zelaiak	- Ez dute baimenik eskatu behar tratamendua egiteko landa-eremuetan badaude.	
BESTE BATZUK	Zerbitzu-sareak		- Tratamendu fitosanitarioak aplikatuko dira soilik beste tratamendu bat erabili ezin denean, euria egiteko aukera txikieneko garaian. - Aholkularitza-agiriak bere baitan izango du Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa.	
	Industria-eremuak		- Tratamendu bat baino gehiago aplikatu daitezke euria egiteko aukera txikieneko garaian. - Asfaltatuta badago, tratamendua ertzetan eta junturretan baino ez da aplikatuko.	BAIMENAK ETA JAKINARAZPENAK (nekazaritzaz kanpoko arloa): Tokiko Administrazioari baimena eskatu behar zaio, gutxienez tratamendua hasi baino 10 egun baliadun lehenago. Eskatera jaso ostean, Administrazioak 2 egun izango ditu herritarrei jakinarazteko.
ERABILERA PRIBATUA	Erabilera pribatuko edo bizilagunen erabilerako espazioak Etxeko lorategiak Ortu familiarrak		- Txartelik ez duten erabiltzaileek profesionalak EZ diren erabilerarako produktuak aplikatu ahalko dituzte. - Produktu sanitarioak <u>umeengandik</u> urrun gordeko dira.	

Laburpen osora sarbidea (<https://nekazaritza.elika.eu/uncategorized-eu/nekazaritzaz-kanpo/>)

## Ingurumena eta ura babesteko neurriak

Errege Dekretuan **ingurumena eta edateko ura babesteari buruzko alderdiak aurrez ikusten dira eta zona berezietan** (habitata eta espezieak babestu behar diren eremuetan eta espezie urtarrak babesteko eremuetan) **arriskuak murrizteko alderdiak ere bai.**

**ELIKA** . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .  
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)